BASQUE OPEN INDUSTRY – 2023 KONGRESUA ANTOLATZEKO ETA KUDEATZEKO IDAZKARITZA TEKNIKOAREN ZERBITZUAK KONTRATATZEKO baldintza teknikoen plegua

Espediente-zenbakia: 2023013
Kontratazioaren xedea: "Basque Open Industry 2023 kongresua antolatzeko eta kudeatzeko Idazkaritza Teknikoaren" Zerbitzuak ematea
Dokumentua: Baldintza teknikoen plegua

1.SARRERA

Aurrekariak

Eusko Jaurlaritzako Ekonomi Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren menpeko SPRI–AGENCIA VASCA DE DESARROLLO EMPRESARIALen (Enpresen Garapenerako Euskal Agentziaren) (aurrerantzean, "**SPRI**") misioetako bat da Euskadiren berraktibazio ekonomikoa azkartzea izaera industrial markatu batekin, kalitatezko enplegua sortzeko eta baita ere aurre egiteko energia- eta ingurumen-eraldaketako, eraldaketa teknologiko-digitaleko eta eraldaketa demografiko-sozialeko erronkei. Berraktibazio hori aukera paregabea izan behar da produkzio-egituraren lehiakortasuna sendotzeko eta ingurumenarekin lotutako irizpideak integratzeko politika sektorial guztietan, baina ez baldintzatzaile gisa, baizik eta lehiakortasun-faktore bezala eta balioa sortzeko aukera gisa.

Era berean, bi mailatako (bi norabidetako) potentzia industrial gisa agertzen den "Euskadi" marka aukera bat da atzerriko enpresak erakartzeko euskal industrian inbertitzera, eta euskal enpresen esportazio-maila handitzeko marka horren ikur diren neurrian.

Baldintzatzaile horiei gehitu behar zaie Euskadi oinarri produktiboa duen herrialdea dela eta manufaktura aurreratua (4.0 Industria) funtsezko elementua dela gure eskualdearen historian.

Helburu hori hiru trantsizioren bitartez landuko da: energia- eta ingurumen-trantsizioa (Euskadi Berdea), trantsizio teknologiko-digitala (Euskadi Digitala) eta trantsizio demografiko-soziala (Euskadi Inklusiboa).

Energia- eta ingurumen-trantsizioaren barruan ekimen hauek sartzen dira: eraginkortasun energetikoa hobetzea (gehiago handituz energia berriztagarrien sarpen-maila), ekonomia zirkularra bultzatzea, mugikortasun jasangarria indartzea, teknologia garbi berriak garatzea eta bioekonomia sustatzea.

Trantsizio teknologiko digitalaren barruan, berriz, ekimen hauek sartzen dira: ezagutza eta negozio-aukera berriak sortzea, eta produktu, prozesu eta negozio-ereduak aldatzea.

Azkenik, trantsizio demografiko-sozialaren esparruan ekimen hauek sartzen dira: osasunaren industria eta Silver Economy (Zilarrezko Ekonomia) bultzatzea.

SPRIk lortu nahi duen posizionamenduak bereziki zentratu behar du lehen bi trantsizioetan (energia eta ingurumen arlokoan eta teknologiko-digitalean), ahaztu gabe haatik trantsizio demografiko-soziala.

Horretarako, SPRIk baditu Eusko Jaurlaritzako Ekonomi Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak diseinatu dituen planak eta estrategiak, Euskadi Europako eskualde aurreratuenen artean kokatzea eta ingurune industrial gisa eraldatu eta posizionatzea helburu dutenak. Gainera, azkartu egin nahi da Euskadi digital, berde eta inklusiboago bateranzko trantsizioa:

- *Euskadi 2025 Eraldaketa Digitaleko Estrategia – Eusko Jaurlaritzako Ekonomi Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila*

- *2024 Ekintzailetzako Erakunde Arteko Plana: gure ekonomia eraldatuz, euskal ekintzailetzaren ibilbide-orria – Eusko Jaurlaritzako Ekonomi Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila*

- *Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Plana Euskadi 2030, oinarri estrategiko eta ekonomikoak – Eusko Jaurlaritzako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Kontseilua*

- *Basque Green Deal – Eusko Jaurlaritzako Ekonomi Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila*

- *Industria Garatzeko eta Nazioartekotzeko Plan Estrategikoa 2021-2024 – Ekonomi Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila*

- *Ekonomia Zirkularraren eta Bioekonomiaren 2024 Plana – Ekonomi Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila*

- *Ingurumenaren Esparru Plana – Ekonomi Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila*

Nolanahi ere, aipatzekoa da Basque Industry 4.0 estrategia, zeinak urte batzuetatik hona bere baitan biltzen dituen 4.0 Industria bultzatu eta azkartzeko ekintzak; adibidez, I+G sektoreko teknologia enpresara transferitzeko finantzaketa eta laguntzak. Hartara, EIKTen bidez zerbitzu aurreratu eta baliotsuak ematen dituzten inguruneak sortzen dira CPS-en (Cyber Physical Systems) barruan. Asmoa da erantzuna ematea maila globalean konponbide lehiakorrak eskaini nahi dituen industria bati edo networking ekimen publiko-pribatuak antolatzea, horien artean nabarmentzekoa delarik izen bereko Kongresua (Basque Industry 4.0). Basque Industry 4.0-ren sei edizio egin dira dagoeneko, eta aurtengoak, “Basque Open Industry” izenarekin, berritu egin nahi du

ekitaldia, helburu honekin: Europako mapa globalean kokatzea Euskadiko ekosistema industriala eta industria moderno berriak bultzatzeko duen gaitasuna; eta, aldi berean, toki berezi bat eskaintzea garapen intelektualari eta profesionalak atzemateko ahaleginari, aurre egin ahal izateko, horrela, etorkizuneko industria aurreratu eta adimentsuenei.

2. KONTRATAZIOAREN XEDEA

SPRIk "BASQUE OPEN INDUSTRY 2023 KONGRESUA ANTOLATZEKO ETA KUDEATZEKO IDAZKARITZA TEKNIKOA" izeneko zerbitzua kontratatzeko beharra dauka (hemendik aurrera, "**Kongresua**").

Kontratazio hori justifikatuta dago lana baliabide propioekin egitea ezinezkoa delako, baliabide materialik ez dagoelako eta SPRIren propioak ez diren lanak egin behar direlako.

Topaketaren helburua da Kongresua abiaraztea, esperientziak trukatzeko eta sareko lankidetza bultzatzeko kongresu-egitura bat sortuz.

Idazkaritza Teknikoak, beti ere SPRIren agindupean, honako lan hauek egin beharko ditu: **Basque Open Industry 2023 kongresuaren** antolaketa tekniko eta logistikoa, dokumentu honen hurrengo atalean zehazten diren lanak betez.

Kontratuaren xede diren jarduerak Euskal Autonomia Erkidegoan egingo dira. Kongresua **BILBAO EXHIBITION CENTERen** ospatuko da eta hiru eguneko iraupena izango du, **2023ko azaroaren 13tik 15era.** Elementu guztien muntaia **azaroaren 11an eta 12an** egingo da (larunbata eta igandea).

Kongresu honen helburua da goi-mailako ekitaldi bat garatzea eta, beraz, ondorengo helburu zehatzak izango ditu:

- **Europara hurbiltzea industria adimendunaren euskal ekosistema**, askotariko profil profesional eta sektorez osatutako ekosistema bat.
- **Ikusgarritasuna ematea** ekintzailetzako ekosistemaren **joerei eta azken berrikuntzei** eta uneko startup garrantzitsuenei**.**
- **Areago handitzea gure lurraldeak herri industrial gisa duen pertzepzioa,** manufaktura aurreratua oinarritzat harturik.
- **Ezagutza teknologikoko gune bat aurkeztea,** pertsonen garapen intelektualaren ahalmenean oinarritua dagoena, euskal enpresa-sarearen lehiakortasuna indartzeko.

- **Talentua** ezagutza teknologikoko eta oinarri produktiboko espazioetara **erakartzea**, eta talentu hori **atzeman eta atxikitzea**.
- **Ekosistema teknologiko eta berritzaile aurreratu globalen mapan kokatzea Euskadi,** garapen profesionalerako eta etorkizun handiko ibilbide bat eraikitzeko ingurune egoki gisa.
- **Hiru trantsizioak mahaigaineratzea eta haien inguruan eztabaidatzea:** energia eta ingurumen-trantsizioa (Euskadi Berdea), trantsizio teknologiko-digitala (Euskadi Digitala) eta trantsizio demografiko-soziala (Euskadi Inklusiboa).

Basque Open Industry ekitaldiaren asmoa da estrategiak, iritziak, teknologia eta esperientziak uztartzea, eta harremanak sustatzea manufaktura aurreratuko euskal ekosistemaren eta oinarri produktiboko ezagutza teknologikoa duen talentuaren inguruan. Hori guztia ondoko hauen bitartez:

- **Hitzaldiak, mahai-inguruak eta tailer praktikoak.**
- Erakusketa-gunea. **Espezializazioak:** I+G, zibersegurtasuna, digitalizazio jasangarria, adimen artifiziala, nazioartekotzea.
- Erakusketa-gunea. **Enpresa eta startupen standak** eta euren azken berrikuntzak.

3. GARATU BEHARREKO JARDUEREN HELBURUAK ETA DESKRIBAPENA

Helburuak

Idazkaritza teknikoak emango duen zerbitzuak zerbitzu globala izan behar du, eta Kongresuaren kudeaketa, antolaketa, ekoizpen eta jarraipen prozesu guztiaz arduratu beharko du, bai eta beharrezkoak diren ikus-entzunezko sistemen eta dekorazio eta seinaleztapen elementuen horniduraz, instalazioaz eta operazioaz baita ere, BECek berak ematen dituenez gain. BECeko aretoen eta espazioen alokairua ez dago sartuta lizitazio honen xede diren zerbitzuetan, baina bai horien egokitasuna eta erabileraren kudeaketa.

Eskaintzaileek item guztiak bete beharko dituzte nahitaez, beste irtenbide alternatibo, aldaera edo aldaketa batzuk aurkezteko aukera badute ere.

Kontratuaren xede diren jarduerak

Enpresa esleipendunak Kongresuaren Idazkaritza Tekniko lana egingo du kontratua sinatzen den egunetik 2023ko abenduaren 31ra arte. Egun horretan egiteke dagoen edozein lan amaituta/konponduta egon beharko da.

Enpresa esleipendunak proiektu honetan, modu jarraituan lan egingo duen lantalde egokia eratu beharko du, lanaren xede diren gaietan esperientzia duten pertsonez osatutako taldea.

Idazkaritza Teknikoak arduradun bat izango du, kontratuak irauten duen bitartean, SPRIren solaskide bakarra izango dena. Bera izango da, SPRIren aginduak jarraituz, zerbitzu desberdinak koordinatuko dituena eta Kongresuak irauten duen bitartean ekitaldia egingo den egoitzan egongo dena.

Enpresa esleipendunak, gutxienez, honako zeregin hauek hartu beharko ditu bere gain:

- Erakundeko idazkaritza iraunkor gisa jardutea prestatze-lanetan, kontratua egiten den bitartean eta kontratua amaitzen den arte.
- Egin beharreko prestazio, ekintza eta zeregin guztiak egiteko jarraitu beharreko metodo operatiboak jasoko dituen lan-plan bat egitea, kronograma batekin batera.
- Hizlarien, biltzarkideen, moderatzaileen, kontalarien, erakusketarien, hornitzaileen eta batzorde zientifikoaren idazkaritza tekniko gisa jardutea.
- Hizlariei arreta ematea, bidaiak eta ostatuak kudeatzea, baita pantailetan erakutsiko diren aurkezpenak eskatzea, jasotzea eta diseinuak errespetatzen direla ziurtatzea.
- Kongresua euskaraz, gaztelaniaz eta ingeleraz berdintasunean ospatuko dela bermatzea, horretarako beharrezkoak diren itzulpengintza zerbitzuak kudeatuz (itzultzaileen ordainketa SPRIk hartuko du bere gain).
- Behar teknikoak eta operatiboak definitzea, bai eta beharrezkoak diren ikus-entzunezko, dekorazioko eta seinaleztapeneko baliabide teknikoen hornidura, instalazioa eta eragiketa ere.
- Horrelako ekitaldi baten koordinazioari, kudeaketari eta operatibari dagozkion gainerako zeregin guztiak.

Kontratuaren irismena

Izaera mugatzailea izan gabe, Idazkaritza Teknikoaren zerbitzuak Kongresua gauzatzen laguntzen duten zeregin guztien kudeaketa jaso beharko du.

Basque Industry 4.0 Kongresua har dezakegu erreferentziatzat; haren azken edizioan, 2019an, 3.800 izen-emate kudeatu ziren, eta 2.500 parte-hartzaile zenbatu ziren. Era berean, hainbat ezaugarritako 170 stand muntatzeko lanak kudeatu ziren (eskaintza teknologikoa eta startupak).

Hartzaileei dagokienez, ohartarazi behar dugu, zerbitzu-mota hori kontratatzeak eskatzen dituen berezitasunak kontuan hartuta, ezin izango dela zehaztu parte-hartzaileen kopuru zehatza, parte-hartzaileak behar bezala inskribatu arte. Beraz, eskatutako ezaugarriak agiri honetan eskatutako zerbitzuak emateko gutxienekotzat eta orientagarritzat hartuko dira.

Espero dugun parte hartzaile kopurua 2.000 ingurukoa izango da, orokorrean EAEko profesionalak, baina beste erkidego batzuetako eta Europar Batasuneko herrialde desberdinetako parte-hartzaileak ere egon daitezke. Egin asmo diren mahai-inguru eta jardunaldiak kontuan hartuz, parte hartuko duten hizlarien kopurua 30 ingurukoa da.
Erakusketa-guneari dagokionez, hauexek instalatuko dira:

- SPRI-EJ/GVren ongi-etorri standa.
- BIND 4.0 ekimenaren 80 stand.
- Startupen 40 stand.
- SPRI-EJ estrategiako 4 stand (BDIH, BCSC, BAIC, BRTA).
- BTIren kanpo sareko 20 stand.

- Kongresuari nortasun propioa eman behar zaio eta industriaren eremuan praktika onen erreferente bihurtu behar da.

- Parte-hartzaileentzako erabilgarria eta atsegina izango den Kongresua garatu beharko da.

- Ekitaldiak bereiztutako hiru atal nagusi izango ditu:

    - Inaugurazioa eta amaiera ekitaldiak.
    - Kongresuko hitzaldi eta mahai inguruak.
    - Erakusketa eremua.

- Kongresua 2023ko azaroaren 13ko goizean hasiko da eta azaroaren 15eko eguerdian amaitu.

Lizitatzaileek aurkeztu beharko duen biltzar-egitura ereduak esperientziak trukatzeko eta sareko lankidetza bultzatzeko egokia izan beharko du

Kongresu hau BASQUE OPEN INDUSTRY da, 2019ra arte egin den Basque Industry 4.0ren ondorengoa dela esan dezakegu, bai irudian baita edukietan ere azken urteetako joerak eta bilakaerak bilduko dituena.

Zeregin eta hornidurak

Idazkaritza teknikoak, izaera mugatzailerik gabe, gutxienez zeregin eta hornidura hauek bete beharko ditu:

- **IDAZKARITZA TEKNIKOA.**

  1. Proiektuaren kudeaketa integrala, plangintza eta koordinazioa.

  Proiektuaren zuzendaritza. Zereginak garatzeko epeak ezarriko dira, eta proiektuaren zenbatespen ekonomiko orokorra egingo da.

  Hornitzaile guztien eskaerak, entregak eta muntaiak koordinatu eta gainbegiratuko dira. Era berean, SPRIren jarraibideen arabera, proiekturako azken lantaldea ezarriko da.

  2. Inaugurazio ekitaldia diseinatu eta produzitzea

  Inaugurazio ekitaldia da Basque Open Industryri hasiera emango diona, Euskal Autonomi Erkidegoko agintari nagusien eta gonbidatu garrantzitsuen parte hartzea izango duena. Horrenbestez, ekitaldi atsegin, deigarri eta originala proposatu behar dio Idazkaritza Teknikoak SPRIri, berau izango baita ekitaldiari buruzko azken erabakia hartuko duena. Ondo baloratua izango da aurrerapen teknologikoen erabilera proposatzen duen ekimena.

  Inaugurazio ekitaldiaren elementu guztiak (dekorazioa, ikus-entzunezkoak, dantzari, musikari etabarrak) denak izango dira Idazkaritza Teknikoaren kontura.

  3. Bertaratuei arreta ematea

  Enpresa esleipendunak izena emateko prozesua kudeatu eta koordinatuko du, bai online, bai aurrez aurre. Telefono bidezko arreta eta beharrezko komunikazioak posta elektronikoaren bidez egingo ditu; sarrera-egiaztagiriak, oroigarriak eta ekitaldira joan nahi duten pertsonekin egin beharreko komunikazioak bidaliko ditu.

Enpresa esleipendunak, halaber, inskribatutakoen eta bertaratutakoen datu-basearen arazketa egin beharko du, eta jarraipena egin beharko du beharrezko komunikazio-neurriak ezartzeko.

4. Hizlariei arreta ematea

Enpresa esleipendunak kontatua izango du hizlariekin eta dagokien arreta emango die.

Behar denean eta, edozein kasutan SPRIk eskatuta, hizlariek behar izan ditzaketen bidaiak eta ostatuak kudeatuko ditu esleipendunak. Esleipenduna SPRIko hornitzaileekin koordinatu beharko da zerbitzu horiek emateko.

Gainera, pantailetan erakutsiko diren aurkezpenak eskatzeaz arduratu beharko da esleipenduna, baita horiek jasotzeaz eta diseinuak errespetatzen direla ziurtatzeaz ere.
Bidaia eta ostatuei lotutako kostuak ez daude sartuta lizitazio honen xede diren zerbitzuetan.

5. Erakusketariei arreta ematea.

Erakusketa eremuan parte hartuko duten erakusketarien galderak erantzutea eta zalantzak argitzea. Baita erakusketari bakoitzaren tokiak ziurtatzea ere.

Erakusketa eremuaren gainbegiratzea, stand bakoitzari dagokion irudia egokia dela ziurtatuz.

6. Erakusketa eremuko arreta.

BECeko 2. pabilioiaren muntaia koordinatzea, eraikiko diren aretoak, standak eta bakoitzaren beharren jarraipena, baliabide teknikoetatik hasi eta hizlarien materialetara iritsi arte. Kongresua osatzen duten elementu guztiak gainbegiratzea.

7. Kongresuaren ostekoa.

Kongresua osatuko duten elementuen eta dekorazio-elementuen bilketa.
Asebetetze inkesta egin eta bidaltzea, eta kongresuaren memoria garatzea, baita txosten ekonomiko bat ere.

Esker oneko mezu/gutunak diseinatzea eta bidalketa antolatzea aldez aurretik Sprirekin hitz egin eta adostuta nola egingo den. Mezu/gutunen hartzaileak

izango dira kongresuan parte hartu duten hizlari guztiak, erakusketariak eta parte-hartzaileak.

8. Hizlari, gonbidatu eta parte-hartzaileentzako materiala.

Enpresa esleipendunak Kongresuan parte hartuko dutenei eman beharreko materialaren proposamena egingo dio SPRIri eta proposatutako materialak SPRIren oniritzia jasotzen duenean, material hori diseinatu eta ekoiztu beharko du parte-hartzaile bakoitzari emateko, betiere Kongresuaren irudiarekin pertsonalizatuta egongo den materiala izango delarik.

Erreferentzia moduan, kongresu honen aurrekari izan den Basque Industry 4.0 kongresuan emandako materiala hau izan da:

Poltsa, koadernoa eta boligrafoa (2.500 unitate)
Eskuko programa (2.500 unitate).
Opariak hizlarientzat (50 unitate).
Akreditazioak (2.500 unitate).

9. Laguntza-sistemetako laguntzaileak

- Laguntzaileak:
  - 6 pertsona muntaia egunean, 4 orduz.
  - 20 pertsona, 6 orduz, azaroaren 13an
  - 20 pertsona, 10 orduz, azaroaren 14an
  - 20 pertsona, 6 orduz, azaroaren 15ean
- Behar izanez gero, hizlari eta agintarientzako gidariak eta joan-etorriak.
- Materialak bidaltzeko mezularitza zerbitzuak.
- Tokian bertan akreditazio sistema.
- Izena emateko inprimakiaren diseinua eta hitzorduak kudeatzeko SAAS plataforma, SPRIk aukeratua, hiru hizkuntzatan (euskara, gaztelania eta ingelesa)
- Inskripzioen kontrola eta jarraipena, eta estatistikak sortzea.
- Akreditazio elektronikoak bidaltzea izena eman dutenei.
- Izena emango dutenen datu basea koordinatzea.

SPRIk emandako inskripzio-sisteman oinarrituta, inskribatutako pertsonei akreditazio elektronikoak bidaltzea, ekitaldiaren egunetan bertan egiaztatzea eta bertaratuak kontrolatzea ahalbidetuko duen sistema elektronikoa eman beharko da.

Aurkeztutako inskripzio-sistemak ekitaldi egunean barrutira modu arin eta kontrolatuan sartzeko aukera eman beharko du, ahal den neurrian sarbideko atzerapenak eta sarreran pilaketak sortzea saihestuz.

- **ERAKUSKETA EREMUA**

Erakusketa eremua Kongresuaren parte garrantzitsua izango da eta honako eremu hauek izango ditu:

- 2023. urtean BIND 4.0 programan parte hartuko duten startupak (60). Bakoitzak mahai altu bat eta bi aulki altu izango ditu. Eremu honen berezitasuna mahai bakoitzean jarriko diren globoak izango dira.
- BIND 4.0 programaren 2022ko edizioan parte hartu zuten startupak (40). Bakoitzak mahai bat eta hiru aulki izango ditu, eta baita ere enpresaren logoa itsatsita izango duen atzealdea.
- Antolakuntzaren standak:
  - Ongi-etorri standa (SPRI-EJ/GV)
  - BDIH
  - BRTA
  - BAIC
  - BCSC
  - BIND 4.0
- Nazioartekotze-sarearen gunea (20)

Honez gain, 500 pertsona hartuko dituen areto nagusi bat izango du, baita hitzaldi-gela bat ere, 150 lagunentzako prestatua. Atseden hartzeko tokiek osatzen dute eremu guztia.

SPRI arduratuko da Kongresuko erakusketa eremuan standak jartzeaz eta enpresa eta start-up interesdunen eskura jarriko ditu. Stand horiek oinarrizko diseinu, egitura eta ekipamendu bat izango dute, eta lizitazio honen Idazkaritza Tekniko esleipendunaren laguntzarekin definitu beharko da.

- **KARTELERIA ETA DEKORAZIOA**

Ondorengo ezaugarriak izan beharko ditu:

1. Kongresurako egokitutako espazio guztien seinaleen, kartelen, iragarkien eta dekorazioaren diseinua eta ekoizpena, eta, hala badagokio, esparruaren jabeak hornitzen ez dituen beharrezko altzariak lagatzea.

2. Kontratatutako aretoen eta ekitaldia egingo den espazio osoaren egokitzapen teknikoa eta estetikoa.

3. SPRIk ekar ditzakeen elementu guztiak eta dekorazio-elementuak garraiatzea, instalatzea eta desinstalatzea.

Basque Open Industry kongresua BECeko 2. pabilioian egingo da. Pabilioi osoaren egokitzapenaz gain, sarrerako espazioa eta kanpo aldea ere kontuan hartu behar dira dekorazio elementuak definitzerakoan.

Enpresa eskaintzaileak bere proposamenean adierazi beharko du areto edo espazio bakoitzerako dekorazio-elementuen kopurua, elementu horien mota eta gutxi gorabeherako tamaina, bai eta ekitaldia egiteko gaitutako guneetan proposatutako kartelei eta seinaleei dagokienez ere.

- **SAIOAK GRABATZEKO EDOTA ZUZENEAN STREAMING BIDEZ EMATEKO AZPIEGITURA TEKNIKOA ETA OPERATIBOA.**

Kongresuko saio guztiak grabatzeko behar den material, ekipamendu eta laguntza tekniko guztia definitzea, hornitzea, instalatzea eta erabiltzea (aldi bereko edukiak dituzten 3 areto aurreikusten dira), eta areto horietako bitik streaming bidez ematea, SPRIk adierazitako kanalen bidez.

Esleipendunak prestatu beharko duen zenbatespen ekonomiko orokorrean aurreikusiko dira hori guztia egiteko langileen kostuak, garraio-kostuak eta beharrezko ekipamendu eta/edo zerbitzu guztiak. Orientabide gisa, gela bakoitzeko gutxienez kamera-operadore bat, FullHD kamera bat, grabagailua eta nahasketa-mahaia egon beharko dira, kamera-irudia aldi berean hartzeko eta ordenagailuko irudiak aurkezpenekin batera hartzeko. Streamingaren kasuan, streaming-operadore bat eta streaming-erako ordenagailu bat emango dira.

Saio guztien grabazioak SPRIri emango zaizkio, fitxategi bereiztuetan, bakoitzak hitzaldi edo ekitaldiaren izena, data eta ordua izango ditu, HD formatuan eta bapateko itzulpena egon den kasuetan, jatorrizko hizkuntza eta itzulpena, biak entregatuko dira. Material guztia bere disko gogor baten bildu eta entregatuko dio enpresa esleipendunak SPRIri.

Era berean, saioak editatuta entregatu beharko dira, postprodukzio-prozesu baten ondoren. Prozesu horretan, HD kalitatearekin bistaratuko dira hizlariak, aurkezpeneko irudiekin batera, SPRIk emandako edo iradokitako maskara eta etiketekin eta une bakoitzean hitz egiten duen pertsonaren izenarekin. Bistaratze hori aldi bereko bi leiho bereizitan egin beharko da.

Horrez gain, ekitaldiari esleitutako idazkaritza teknikoaren ardura izango da kongresu osoan HD kamera mugikor bat eta beharrezko gainerako baliabide teknikoak, kamera horretako operadore bat eta hizlariei eta erakusketariei elkarrizketak egingo dizkien kazetari-profila duen pertsona bat eskura jartzea. Elkarrizketa horiek HDn grabatu eta SPRIri eman beharko zaizkio, ekitaldiaren gainerako grabazioak bezala.

Azkenik, ekitaldiari esleitutako idazkaritza teknikoaren ardura izango da ekitaldiaren laburpen-bideo bat egitea/ekoiztea. Bideo horretan ekitaldiaren une nagusiak eta gune esanguratsuenak jasoko dira, eta hori guztia biltzarraren zabalkunderako eta marketinerako elementu gisa erabiliko da. Bideo horrek 1:45 eta 2:30 minutu arteko iraupena izan beharko du, dagozkion mezuak eta kredituak barne. (Ikus 2019ko laburpen-bideoa, adibide gisa: https://www.youtube.com/watch?v=OBJksBLyFZM)

- **EDUKIAK ETA FORMATUAK**

Enpresa esleipendunak landu beharreko edukien eta biltzarreko saioetarako formatuen proposamena egin beharko du. Halaber, saio horiek hizlari, moderatzaile, artista, teknikari eta abarrekin koordinatuko ditu. Idazkaritza teknikoaren lana izango da hizlari potentzialekin harremanak ezartzea, negoziatzea eta akordioak ixtea, SPRIk unean-unean emandako jarraibideen arabera. Era berean, Idazkaritza Teknikoak behar diren txantiloiak diseinatu eta ekoitziko ditu, biltzarra egiteko behar diren areto, ponentzia, trantsizio, informazio edo bestelakoetarako.

- **IREKIERA EKITALDIA**

Enpresa esleipendunak kongresuari hasiera emateko jarduera artistiko bat asmatu, diseinatu, hornitu eta gauzatu beharko du; aldez aurretik SPRIrekin adostu beharko da, eta haren oniritzia beharko du.

- **ARRETARAKO TELEFONOA ETA POSTA ELEKTRONIKOAREN KUDEAKETA**

Idazkaritza Teknikoak berariazko telefono zenbaki bat gaituko du, bere kargura, Basque Open Industry kongresuari buruzko edozein zalantza edo galdera erantzuteko. Enpresa esleipenduneko langileek erantzungo dituzte telefono horretan jasotako deiak eta langile horiek euskaraz, gaztelaniaz zein ingelesez erantzuteko gaitasuna izan behar dute. Deia hartzerakoan esan behar den lehen gauza “Basque Open Industry kongresua” izango da. Era berean, idazkaritza teknikoak posta elektroniko helbide propioa sortu beharko du atal honetan

zehazturiko helburuetarako, kontu hori nahitaez idazkaritza teknikoak kudeatuko du eta kongresuari dagokion edozein komunikazio bai hizlariekin, zein izena eman dutenekin, hornitzaileekin etabar., kontu horretatik egin beharko du idazkaritza teknikoak.

- **KONGRESUAREN WEB GUNEAN DATUAK ETA EDUKIAK KUDEATU ETA ARGITARATZEA**

Kongresuaren web guneko edukiak eguneratuta izatea idazkaritza teknikoaren ardura izango da. SPRIk bere eskura jarriko ditu horretarako beharrezkoak izango dituen lanabes teknikoak. Eduki guztiak eta datuak eguneratuta egon behar dute une oro, hiru hizkuntzetan (euskara, gaztelania eta ingelesa). Itzulpenak idazkaritza teknikoaren kargura izango dira.

- **KONGRESUAREN HIZKUNTZA**

Kongresua hiru hizkuntzatan egingo da, hau da euskara, gaztelania eta ingelesa eta, beraz, idazkaritza teknikoak itzulpen guztien kudeaketa koordinatu beharko du Beharrezko informazioa eta dokumentazioa aipatutako hiru hizkuntzetan egon beharko da baita ere.

Era berean, idazkaritza teknikoaren eginkizuna izango da beharrezko elementuak eta giza baliabideak bermatzea, kongresua osatzen duten saio guztiak aldi berean itzuli ahal izateko.

Esleipendunak aurkeztu beharreko zenbatespen ekonomiko orokorrean zehaztu beharko du zenbatekoak izango diren zuzeneko / aldi bereko itzulpengintzak izan ditzakeen kostuak.

Dena den, SPRIk benetan egindako itzulpen zerbitzuak bakarrik ordainduko ditu. Horretarako, esleipendunak, kongresua amaitu eta jarraian, itzulpengintza zerbitzuei dagozkien fakturak helaraziko dizkio SPRIri. Faktura horietan zehaztu beharko da (i) egindako itzulpen zerbitzuak zenbatekoak izan diren, eta (ii) itzultzaile bakoitzaren lan egun bakoitzeko kostua zenbatekoa den.

- **CATERING ZERBITZUA**

Kongresuan, catering zerbitzuen eskaintza egon daiteke. SPRIk kongresuaren programa garatu ahala erabakiko du zerbitzu hori eskainiko den ala ez. Eskaintzekotan, hornidura eta zerbitzua BECek horrelako zerbitzuak emateko esleitutako enpresak eskainiko ditu. Hala ere, idazkaritza teknikoa arduratuko da, catering zerbitzua egotekotan, zerbitzuaren edukia zehazteaz, koordinatzeaz eta

enpresa hornitzailearekin negoziatzeaz kontratatu beharreko zerbitzua behar bezala entregatzeko behar diren elementu guztiak egokiak direla, betiere SPRIk emandako jarraibideei jarraituz. Catering-hornidura BECe esleitutako enpresak egingo du eta, beraz, zerbitzuaren kostua ez dago sartuta lizitazio honen prezioan.

- **LANAREN JABETZA**

Enpresa esleipendunak proiektu honen barruan eta kontratuak irauten duen bitartean egindako lan guztiak SPRIren jabetzakoak izango dira.

Bereziki, kontratu honen esparruan garatutako material grafiko edo hedapen-material guztia SPRIren jabetza esklusiboan geratuko da, inolako mugarik gabe erabiltzeko edo aplikatzeko.
Biltzarrean erabili beharreko irudia SPRIrena izango da, bai eta SPRIk aplikagarritzat jotzen duena ere, euskarri fisikoan zein elektronikoan erabilitako edozein euskarri eta baliabidetan.

SPRIren irudia komunikazio eta marketin sailak horretarako ezarritako jarraibideen arabera aurkeztu eta zabalduko da.

Idazkaritza teknikoaren enpresa esleipenduna, edo SPRIk baimendu gabeko beste edozein, ezingo da ekitaldiaren inguruan erabilitako euskarri bakar batean ere agertu.

4. PROIEKTUARI ESLEITUTAKO LANGILEEK BEHAR DUTEN LANBIDE-PROFILA

Proiektu hau gauzatzeko esleitutako langileei izan beharreko gaitasunak eta bete behar dituzten baldintzak honako hauek dira:

- Proiektuaren arduradun nagusia izango den pertsona: mota honetako lanetan ezagutza eta eskarmentua izan behar du; berau izango da SPRIko solaskidearekin harremana izango duena. SPRIko solaskidearekin izango duen idatzizko eta ahozko harremana euskaraz izango da nagusiki, horrenbestez pertsona honen euskarazko hizkuntza gaitasuna altua izan beharko da.
- Esleitutako langileek behar adinako gaitasun teknikoa eta esperientzia izan beharko dute proposatutako ekitaldiaren izaera eta dimentsioko ekitaldien koordinazioan, kudeaketan eta produkzioan, eta enpresa esleipendunaren mende egongo dira soilik.
- Idazkaritza Teknikoaren enpresa esleipendunak proiektuaren esku jarri beharko ditu euskara, gaztelania eta ingelesa dakiten edo egiazta daitezkeen pertsonak,

eta positiboki baloratuko da beste hizkuntza batzuk jakitea. Horiek horrela, ondorengo gutxieneko hizkuntz eskakizunak zehazten dira lantaldeko kideentzako:

- Proposatuko den proiektuaren arduradunak C1 mailan edo baliokidean euskara menderatu beharko du.
- Esleitutako gainerako proposatutako lankideetatik gutxienez batek euskarazko C1 mailan edo baliokidean euskara eta ingelera menderatu beharko du. Ez du halabeharrez pertsona bera izan behar.

• Esperientzia-urteak:

- Proiektu arduradun nagusiak: 10 urteko esperientzia izan beharko du gutxienez.
- Esleituko diren bestelako langileek: 5 urteko esperientzia izan beharko dute gutxienez.

Idazkaritza teknikoak garatutako lan guztiak SPRIko arduradunek gainbegiratuko dituzte eta lan horiei buruzko azalpenak eskatu ahal izango dituzte, beharrezkotzat joz gero, kontratatu diren lanak egiten ari direla ziurtatze aldera.

5. ZERBITZUAREN IRAUPENA

Kontratua sinatu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean proiektua garatzeko epea eta 2023ko abenduaren 31n amaitu. Dokumentu honetan jasotako lan guztiak epe horretan egin beharko dira, eskatutako kalitatea bermatuz.

Kongresua azaroaren 13an hasiko da eta azaroaren 15eko eguerdian amaitu. Hala ere, idazkaritza teknikoak proiektuaren zerbitzura egon beharko du kontratua sinatzen denetik zerbitzua amaitu arte; hau da, abenduaren 31ra arte.

Idazkaritza Teknikoaren eskaintza zehazterakoan kontuan hartu behar da Kongresuaren aurreko bi egunetan muntaketa egingo dela eta Kongresua bukatu eta hurrengo egunean desmuntaketa egin beharko dela baita ere.